

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

**OSASUNA**

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Osasunbideak iraupen luzeko kontratazio berriak egingo ditu zortzi espezialitate medikotan

*Profesionalak eskuratu nahi ditu arlo hauetarako: Pediatria, Familia Medikuntza, Traumatologia, Dermatologia, Errehabilitazioa, Anestesiologia, Erradiodiagnostikoa eta Anatomia Patologikoa*

Ostirala, 2017.eko irailak 1

Osasunbideak iraupen luzeko kontratazio berriak egingo ditu honako espezialitate hauetan: Pediatria, Familia Medikuntza, Traumatologia, Dermatologia, Errehabilitazioa, Anestesiologia, Erradiodiagnostikoa eta Anatomia Patologikoa. Kontratuen bitartez, bete gabe dauden plazak edo egiturazko plazak beteko dira Iruñeko, Lizarrako eta Tuterako osasun-arloetan, eta urte batekoak izango dira.



Medikuntzako profesionalak eskuratzeko kanpainaren irudia.

Osasun Departamentua Medikuntzako profesionalak eskuratzeko kanpaina egiten ari da, besteak beste, elkargo profesionalen, sare sozialen eta komunikabideen bitartez, Nafarroako osasun-sistema publikoan sartu nahi duten hautagaiak erakartzeko asmoarekin.

Atzerrira joandako profesionalak itzultzea sustatzeko Nafarroako Medikuen Elkargoaren bitartez egin berria den kanpainari gehitu zaio egungo kanpaina.

Helburua da lehentasunezko zortzi espezialitatetako premiak betetzea eta dauden profesionalak kontratatze gainerako zerrendak eguneratzea. Kontratazio horietara aurkezteko edota informazio gehiago eskuratzeko, hautagaiak 848 42 87 69 telefonora dei dezakete (8:00etatik 15:00era) edota mezua idatzi [consultas.contratacion.sns@navarra.es](mailto:consultas.contratacion.sns@navarra.es) posta elektronikora.